


ARRASATE
natura bideak rutas naturales



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGON


HERRIGUNEA UDALA














HERRIGUNEA - UDALA

Ibilbide honek lotzen ditu herrigunea eta Udala auzoa, Udaltx mendiaren magalean kokatua. Nahiz eta gaur egun baserri girokoa izan, meatzari lotutako iragana du, inguruan meatze ugarik hala erakusten dute eta. Auzo horretan hasten da Besaiderako bidea, euskal mendizaleen topagunea. Ibilbidearen zati handiena doa artadietatik. Aukera dago inguruko mendien ikuspegi ederrez gozatzeko.



MIDE

<p>Ibilbidearen maila teknikoa eta fisikoa neurtzeko metodoa. Zailtasun maila da 1etik 5era, txikienetik handienera.</p>	Denbora		2h 35'
	Igoera desnibela		362 m
	Jaitsiera desnibela		362 m
	Distantzia horizontala		7,3 km
	Ibilbide mota		Zirkularra
	Ingurune naturalaren gogortasuna		1
	Orientazioa ibilbidean		2
	Zailtasuna desplazamenduan		2
	Egin beharreko esfortzua		2

MAPA



IBILBIDEAREN AZALPENAK

- **(A) Monterron parkea.** Ibilbidea hasten da Monterron parkean, bidegorria hartuta ezkererantz, eta 600 metrora eskuinerantz gora eskaileretatik; segitzen du gorantz, eskailerak bukatu arte. Gero, bidexkak jarraitzen du Gorostizako etxeen atzetik. Segitzen du gorantz. Laster pasatzen da Kontzepzionisten mojaetxearen eskumatik, eta aldapa bukatzen denean, bidegurutzean, segitzen du aurrera gorantz doan bidexkatik. Aurrerago bidexka pista bihurtuko da eta pista nagusi horretatik egiten du aurrera. Beste aldapa baten ostean, bidea pasatzen da txabola baten aldamenetik; aurrerago hartzen du eskumako bidea, eta beste txabola baten albotik pasata, aurrera zuzen doa, Udala auzora iritsi arte.

- **(B) Udala auzoa.** Errepidetik doa Udala auzoko beheko baserrietara. Han, San Esteban elizaren albotik jarraitzen du labaderora eta iturrira, eta hortik berriz ere Udalako goiko baserrietaraino. Beheranzko bidea jarraitu Lehorraga baserriantz doana, eta baserrira iritsi baino metro batzuk lehenago, eskumarantz doan bidexka. Bidexka hori doa pixka bat beherago ezkererantz. Aurrerago bidegurutzean hartzen du ezkerrean, Salturrirantz. Hurrengo bidegurutzean egiten du eskumara, eta zuzen pistatik bat egiten du igoyerako bidearekin, irteera puntura iristeko.

Ab




▪ **Abariztiak (*Quercus coccifera*):** abariztia da haritzaren eta artearen ahaide mediterraneokoa. Haien populazioak nahiko hedatuta daude Arabako eta Nafarroako hegoaldean, eta Ebroko arroan, baina Gipuzkoa eta Bizkaian populazio bi bakarrik ezagutzen dira: Serantes mendian (Santurtzi) eta Arrasateko hau, Larragain inguruan.

Ar



▪ **Artadi kantauriarra (*Quercus ilex*):** klima mediterraneoari lotutako basoa itxia dugu, gorde dena gainazaleko lurzoruetako eremuetan. Horri lotuta daude klima mediterraneoko espezie tipikoak, adibidez endalaharra (*Smilax aspera*).



▪ **Landazabal atlantikoa:** ekosistema konplexu eta aberatsa da, giza jarduerak sortua baserri inguruan, landa eta soroak heskaiak mugatuta dituena. Garai batean Arrasaten paisaia nagusia izan zena gaur egun bihurtu da altxor preziatu, ondo gorde eta zaindu beharrekoa.

4
HU



▪ **San Esteban eliza:** sabaia eraiki zuen Juan Bautista de Salturri hargin maisuak 1609an; aldare nagusia, berriz, Antonio Antiak eta Manuel Olaranek 1763an. Aurrealde erromanikoa du. Jaiak abuztuaren 3an ospatzen dira.

5
HU



▪ **Labaderoa:** XIX. mendearen bukaera arte arropak ibai ertzetan garbitzen ziren. Emakumeek, erreka ertzetan makurtuta, lan nekagarria egiten zuten. Labaderoak eraiki zituztenean lan baldintzak asko hobetu ziren. Hau da Udala auzoko labadero nagusia, XX. mende hasieran egin, orduko auzo labadero gehienak bezalaxe.



- GR 121 Bizkar bidea (Gipuzkoako bira)
- PR-Gi 96 Udala-Besaide
- Udalatxeko bira
- Udalatxera igoera